

Komunikazioko aditu ugarik irakatsiko dute HUHEZIn datorren ikasturtean

2007/07/12

Datorren irailetik aurrera, **2007-2008 ikasturtean**, komunikazioko aditu askok irakatsiko dute HUHEZIn, Ikus-entzunezko komunikazioan. Hona hemen zerrenda

- Anjel Lertxundi idazle eta gidoigileak gidoigintza irakatsiko du.
- Eneko Olasagasti zine eta telebista zuzendariak, errealizazioa.
- Bingen Zupiria ETBko zuzendariak eta Jaime Otamendi ETBko albistegietako arduradunak kalitatea irakatsiko dute.
- Iban del Campo dokumentalgileak Ikus-entzunezko sistemen egitura eta dokumentalgintza emango ditu.
- **Idoia Astigarraga** telebista adituak irakatsiko ditu ikus-entzunekoekin lotutako ikasgaiak.
- Iñaki Guridi eta Garikoitz Udabe Euskadi Irratiko esatariek Irratigintza 1 eta 2 emango dute, hurrenez hurren.
- Aintzane Perez del Palomar ETBko kanpo erosketen arduradunak International Communication irakatsiko du, ingelessez.
- Jasone Agirre ETBko kazetariak Komunikazioaren teoria irakatsiko du.
- Produkzio-munduan aditua den Julia Lopezek Producción on TV emango du, ingelesez.
- Goio Arana diseinatzale sarituak emango du Komunikazio grafikoa, Informazioaren diseinua eta Fotokazetaritza.
- Alazne Aiestaran doktoreak Komunikazioaren Teoria emango du 1. mailan.

